

URDAIBAI

2019
zenb 20

© MAGAZINE



BIZITZA HOBETU
MUNDUAN
herri bakoitzean
inor atzean utzi barik

■ AITOR BEDIAUNETA, *EUSKAL GORRAK*

■ ITSAS EKOSISTEMA, URDAIBAI

■ AITA ARRIANDIAGA, ELANTXOBE

■ TXIPIROIAK

■ EGUZKI JAIA, EA

■ NEGUKO PLANAK URDAIBAIN

txikitasunetik handi

Landa eta itsasertz garapena
Desarrollo rural y litoral



Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO



INFORMATZEA, ZEHARKAKO HELBURUA

2020ko urtarrilean, Nueva Europa S.L-ren enpresa-ibilbideak 25 urte beteko dauz. Lanak esperientzia eta ezagutza emon deusku, baina espiritu ekintzailea eta Busturialdea-Urdaibairen eta bertako herri bakoitzaren potentzialaren konbentzimendua, "serietik" ekarri gendun. Gure ezaugarri horrek eragin dau lan bakoitzean garapen iraunkorrerako aukera-sorta bat ikustea, geure komunitate txikiarentzat. Erroak hartzea eta proiektuak sortzea da geure enpresaren muina. Aldizkari hau ebidentzietako bat da. Urdaibai Magazine 2015ean argitaratu zan apaltasunez eta zerbitzu-kontzientzia handiagaz.

Urdaibai Magazineko 2. zenbakian erreportaje nagusia AQUA ALTA BUSTURIALDEAN izan zan. Bertan, aldaketa klimatikoaren mehatxua jorratzen zan, eta honako hau baieztatzen zan: *"Garaiz gagoz aldaketa klimatiko bat saihesteko, aurreikusi ezin diren afekzioekaz. Berotegi-efektuko isurketak murriztu behar dira, energia barriztagarrien aldeko apustua eginez eta eraginkortasun energetikoa areagotuz. Irtenbideak maila globalean zein lokalean eta gizarte mailan zein indibidualean aplikatu behar dira ... Oro har, murriztu egin beharko lirake ingurune fisiko naturalari eta itsasertzeko biodibertsitateari eragiten deuseezan egungo presioak, haien ondasun eta zerbitzuak murrizten baitabez. Eremu urbanizatueta, higaduratik eta uholdeetatik babesteko azpiegiturak indartu eta, hala badagokio, areagotu behar dira".*

3. aldizkarian energia-eraginkortasuna izan zan, 5.ean saneamendua, 8.ean diru-sarrerak bermatzeko errenta, 13.ean plastikoak itsasoan, 16.ean tokiko merkataritza, 19.ean kultura eta jasangarritasuna, beste batzuetan lehen sektorea, arrantza, ekintzaitza...

"Gurea" balioan jartzen laguntzeko asmoa dogu, funtsezkotzat jotzen doguzen gaien buruzko egiazko informazioa zabalduz, eta geure ildo editoriala eta edukia munduko konpromisua diran Garapen Jasangarriko 17 Helburuekaz lerrokatuta dagozela egiaztatu ahal izateak gogobetetzen gaitu. Egia horrek oso erraz egiten dau Urdaibai Magazinek, zenbaki honetan, esanbidez konpromisoa hartzea GJHen hedapenagaz, ulermenagaz eta hauen ezarpena bultzatzeagaz. Aldizkariaren 5. urtea be itxi gura dogu, eta eskerrak eman gura deuseguz bere publizitateagaz babesten daben guztiei; haiek barik, geure asmoa "ilusio" bat baino ez leike izango.

HARPIDETZA

Aldizkaria jaso nahi badozu, gurekin harremanetan jarri hemen:
urdaibaimagazine@nuevaeuropa.com
 tel.: 94 625 06 06

www.urdaibaimagazine.eus

URDAIBAI MAGAZINE NUEVA EUROPA S.M-REN LANTALDEAK BURUTU DAU

Urdaibai Magazinek ez dauz bere gain hartzen hirugarrenen emondako eritxiak edo egindako komentarioak.

ARGITARATZAILEA

NUEVA EUROPA S.L

Carlos Gangoiti, 15, bajo
 Gernika-Lumo (Bizkaia)

nuevaeuropa@nuevaeuropa.com
www.nuevaeuropa.eus

LEGE GORDAILUA: BI-153-2015

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.



AURKIBIDEA




18 LEKUKO
 EGUZKI JAIA, EA

20 KALERIK KALE
 AITA ARRIANDIAGA, ELANTXOBE

24 SALTSA-PORRU
 TXIPIROIA, MOLDAKORRA ETA
 NORTASUNDUNA

26 BERDEAN
 ITSAS EKOSISTEMA, URDAIBAI



Urdaibat

BIZITZA HOBETU MUNDUAN, HERRI BAKOITZEAN, INOR ATZEAN UTZI BARIK

Gure ingurunean oparotasuna sustatzeko eta, aldi berean, planeta babesteko neurriak hartzeko erronkan murgilduta gagoz. Bizitza pertsonalaren eta profesionalaren egunerokoan, enpresa pribatuen zein tokiko erakunde publikoen egunerokotasunean pobreziari amaiera emoteko, planeta babesteko eta pertsona guztiok bakea eta oparotasuna izango doguzela bermatzeko garapen iraunkorren munduko helburuak lortzearen alde lan egiteko erantzukizun indibidual eta kolektiboa dogu.

Nazio Batuetan 2016ko irailean onartutako Garapen Jasangarriaren Helburuek (GJH) etorkizuneko belaunaldien aldeko aldaketa positiboa proposatzen dabe, bizitza modu jasangarrian hobetzeko. Helburu handi horrek gobernuen, sektore pribatuaren, gizarte zibilaren eta herritarren lankidetzak eskatzen dau. Guztion artean, gizarte solidario bat garatu eta bultzatu behar dogu, ezagutzen eta barrikuntzan oinarritua; giza garapen iraunkorrerako baldintzak erraztu behar doguz; lurraldearen garapena eta pertsonen potentziala sustatu eta bultzatu behar doguz.

2015eko Garapen Jasangarriko Munduko Batzar Nagusian, Nazio Batuen Erakundeko Estatu kideek garapen jasangarriko 2030 Agenda onartu eben. Agenda horrek 17 helburu daukoz (GJH), 169 helmuga espezifiko, datozen 15 urteetan lortu beharrekoak, eta adierazpen politiko bat.

Garapen Jasangarriko 17 Helburuak (GJH) 2000. urtetik indarrean dagozen Milurtekoko Garapen Helburuek (GJH) lortutako arrakastak zabaltzera eta, aldi berean, lortu ez ziran helburuak lortzera bideratuta dagoz. Agenda 2030 unibertsa da. Herrialde guztiak, "garatuak" deritzogunak eta alderdi interesdunak barne, ados jarrita, praktikan jartzen ari dira. Euskal erakundeek be konpromiso esplizitua hartu dabe ekimen unibertsal honekiko: pobrezia amaiera emoteko neurriak hartzea, klima-aldaketari aurre egitea, planeta babestea, eta desberdintasunaren eta bidegabekeriaren aurka borrokatzea, pertsona guztiek bakea eta oparotasuna izango dabela bermatzeko.

Daukoguzen erronkak ezin dira bakarka joratu. Larrialdi sozial, klimatiko, energetiko eta abarreko egoera konplexu eta interkonektatuak pairatzen doguz, tresna partekatuek gaintitu behar doguzenak, inor atzean utzi barik. Mundu mailan, 17 GJH dira pobrezia desagerrarazteko eta desberdintasunak eta ahuleziak murrizteko tresna; helburu integratuak dira, eta aitortzen dabe arlo bateko esku-hartzeek beste arlo batzuetako emaitzei eragingo deutseela eta garapenak ingurumenaren, ekonomiaren eta gizartearen jasangarritasuna orekatu behar dauela. Hauek dira GJHko 17 helburuak

1. Pobrezia bere forma guztietan desagerraraztea mundu osoan.
2. Gosea amaitzea, elikagai-segurtasuna eta elikadura hobea lortzea, eta nekazaritza jasangarria bultzatzea.
3. Guztiontzat eta adin guztietan bizimodu osasungarria bermatzea eta ongizatea sustatzea.
4. Guztiontzako kalitatezko hezkuntza inklusiboa ta bidezkoa bermatzea eta etengabeko ikaskuntzarako aukerak bultzatzea.

5. Genero-berdintasuna lortzea eta emakume zein neska guztiak ahalduntzea.
6. Uraren eskuragarritasuna eta kudeaketa jasangarria ta guztiontzako saneamendua bermatzea.
7. Energia eskuragarria, fidagarria, jasangarria eta modernoa bermatzea guztiontzat.
8. Guztiontzako hazkunde ekonomiko jarraitua, inklusiboa eta jasangarria, osoko enplegu produktiboa eta lan duina sustatzea.
9. Azpiegitura erresilienteak eraikitzea, industrializazio inklusibo eta jasangarria bultzatzea, eta berrikuntza sustatzea.
10. Herrialde bakoitzaren barneko eta herrialdeen arteko desberdintasunak murriztea.
11. Hiriak eta giza kokaguneak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak izatea lortzea.
12. Kontsumo eta ekoizpen modalitatea jasangarriak bermatzea.
13. Klima-aldaketari eta haren ondorioei aurre egiteko premiazko neurriak hartzea.
14. Ozeanoak, itsasoak eta itsas baliabideak mantentzea eta modu jasangarrian erabiltzea, garapen jasangarriari begira.
15. Lehorreko bizitza babestea, lehengoraztea eta modu jasangarrian erabili dadila sustatzea, basoak modu jasangarrian kudeatzea, basamortutzearen aurka borrokatzea, lurren degradazioa gelditzea eta lehengoraztea, eta biodibertsitatearen galera gelditzea: lehorreko ekosistemak eta biodibertsitatearen kudeaketa jasangarria.
16. Garapen jasangarriko gizarte baketsu eta inklusiboak sustatzea, guztioi justiziarako sarbidea erraztea eta euren jarduerak eta kontuak azaltzen dabezen erakunde eraginkorrak eta inklusiboak sortzea maila guztietan.
17. Garapen Jasangarriko Mundu Aliantza inplementatzeko ta bizibarrizteko tresnak sendotzea.



Helburu hoiek berezitasun bat dauke: herrialde guztiak, aberatsak, pobreak edo diru-sarrera ertainak daukezenak, oparotasuna sustatzeko neurriak hartzera behartzea, eta, aldi berean, planeta babestea.

17 GJHeK hedatzen dabezen 169 xedeetatik, 80 erreferentziazko helmuga identifikatu dira udalerrientzat. "Jasangarritasunerako Udalerrien Euskal Sarearen ekarpena Garapen Jasangarriaren Helburuei" izeneko txostenean, 80 helburu hoiek bi multzotan sailkatzen dira: EAEn oro har onartuta dagozenak eta erronka barriak ekar daikkeenak.

Euskadin, Agenda 2030 lantzen ari da Eusko Jaurlaritza, Euskadi Basque Country 2030 Agendaren bidez. Agenda hori Foru-Aldundiek be hartu eta bultzatu dabe. Agerikoa da, ostera, hiriek eta udalerriek funtsezko zeregina daukeela nazioarteko helburuak lortzeko aldaketa-ekintza eraginkorrek abian jartzeko orduan.

Zentzu honetan, nabarmendu behar da Euskadi dela gizarte baten osasuna zehazten daben adierazleetan aurreratuen dagozen komunitateen rankingaren buru, Jasangarritasunaren Behatokiak (JB), AIS Group aholkularitza-enpresak eta Herritarren Fundazioak egindako txostenaren arabera.

Geure egunerokoan asko egin daikegu

Udalsarea 2030 sarea osatzen daben Euskadiko udalerriek Euskadiko Tokiko Garapen Jasangarriaren Behatokian dagozen adierazleak daukeez, *e-mugi* aplikazioan eskuragarri dagozenak, prozesuaren hasierako abiapuntu gisa egiten daben ekarpenaren lehen azterketa egiteko.

Herri-mailan, udalerriek GJHak lortzen lagun daikkez, hoiek zahartze aktiboaren eta gizarte-baliabideak eskuratzearen aldeko udal-politiken bidez aplikatuz (1. helburuaren barruan); nekazaritza eta abeltzaintza-produktibitatea eta ekimen ekologikoen sustapena hobetzea, eta autokontsumorako eta tokiko ekoizpenerako ortuak sustatzea (2. helburua); bizi-ohitura osasungarriak sustatzea, kalitate akustikoa hobetzea (3. helburua); hezkuntza, kultura eta kirol-ekipamenduetarako sarbidea erraztea, garapen

Gizarte baten osasuna zehazten daben adierazleetan aurreratuen dagozen komunitateen rankingaren buru da Euskadi



Busturialde,
EUSKARA eta
URDAIBAIREN alde





jasangarria heztea eta euskara sustatzea (4. helburua); berdintasun-politiken garapena bultzatzea eta emakumeen eta nesken ahalduztzea sustatzea maila pertsonalean (5. helburua); ur-baliabideen kontrola eta kudeaketa (6. helburua); kontsumoa arrazionalizatzea eta energia-eraginkortasuna handitzea (7. helburua); gizarte-ekonomia eta turismo jasangarria sustatzea (8. helburua); jardueren ingurumen-portaeraren hobekuntza eta legezko egokitzapena sustatzea (9. helburua); biztanle-sektore guztientzat aukera-bardintasuna sustatzea (10. helburua); kultura parte-hartzailea sustatzea, etxebizitzaren birgaitzea eta hiri-berronartzea bultzatzea eta hirigintza-planteamendu jasangarria bermatzea; ondare historiko, arkitektoniko, industrial eta naturala kontserbatzen dala zaintzea (11. helburua); erosketara eta kontratazio publiko berdea, kontsumo jasangarriaren sustapena eta hondakinen prebentzioa eta kudeaketa (12. helburua); udalerrira klima-mehatxuek eragindako eraginaren aurrean

egokitzeko plangintza (13. helburua); itsasoan amaitzen daben ur-baliabideak kutsatzeko arriskua murriztea, itsas eremua eta haren kultura balioestea, arrantza-sektorearen lehiakortasuna zaintzea (14. helburua); baso-mota guztien kudeaketa jasangarria, mendi-ekosistemen

2. helburua: Gosea amaitzea, elikagai-segurtasuna eta elikadura hobea lortzea, eta nekazaritza jasangarria bultzatzea

kontserbazioa bermatzea, eta ekosistemen eta biodibertsitatearen balioak udal-plangintzan txertatzea (15. helburua); erakundearen gardentasuna, informazioa eskuratzea eta sailen arteko koordinazioa (16. helburua);

Arrien Optika



Urkieta k. 10

Tel./Fax: 946 25 63 63

Email: arrienoptika@yahoo.es

ARRIBALTA
KAFETEGIA

Barrenkalea, 6
946 466 084



ARRIZA
KAFETEGIA

Artekalea
944 650 698

48300 Gernika-Lumo

eta erakundeen arteko koordinazioa eta sareko lana indartzea, jarduera solidarioa sustatzea, nazioarteko lankidetzak sustatzea eta kultura-trukeak sustatzea. Kooperatiboak eta solidarioak (17. helburua).

Nazio Batuek markatutako helburuen artean garapen iraunkorrerako helburu globalak bereizten dira, mundu mailan eta tokian tokiko erakunde eskudunen esku geratzen direnak; eta herritarrengandik gertuen dagoenak, pertsona bakoitzak, geure eguneroko bizitzan, praktikan jar daitezkeenak. Pauso sinpleak, hala nola elektrizitatea aurrezte, etxetresna elektrikoak erregleta batean entxufatuz eta erabiltzen ez doguzenean erabat deskonektatuz, ordenagailua barne; dutxa laburrak hartzea, bainuontziek 5 eta 10 minutu arteko dutxa batek baino askoz litro ur gehiago kontsumitzen dabelako; produktu freskoak eta soberakinak izoztea, hondatu baino lehen; tokiko produktuak erostea; izan be, inguruko negozioetan laguntzeak enplegua mantentzen

laguntzen deitso jendeari, eta kamioiek distantzia handiak mugitu behar izatea eragozten dau ... Hauek dira mundua zaintzeko eta hobetzeko denok eskura doguzen planteamenduetako batzuk.

Erronka da garatzen ari dan 2020tik 2030ean gure herrietan zerbitzuak jasotzeko aukera bermatzea, pertsonen ongizatea eta bizitza osasuntsua eta inguruneagaz orekatua izaten lagunduko daben natura eta paisaia-balio nabarmenak ziurtatuz.



Ezagutu Gauegiz Arteaga pausoz pauso



Gauegiz
ARTEAGA

TURISMO

SUKARRIETAK

AISIALDI OSASUNTSUA BULTZATZEN DAU

Sukarrietako Udalak herriko bizilagunen artean osasuna hobetzeko prebentzio eta hezkuntza politika aktiboa jarri dau martxan. Helburu hori, lehen fase honetan, ibilbide osangarri bat sortzean gauzatu da. Ibilbide horrek, batez be, jokabide sedentarioak izateko joera daukeen pertsonak motibatzen eta bultzatzeko behar diren ezaugarriak izango dauz, guztiz osangarria dan ibiltzea sustatuz.

| | |
|-------------------------------|------------|
| Ibilbidea | zirkularra |
| Distantzia, guztira: | 2,5 km |
| Igoeraren desnibel metatua | 73 m |
| Jaitsierako desnibel metatua: | 73 m |
| Gehieneko altuera: | 84 m |
| Gutxienezko altuera | 2 m |
| Zailtasuna | Erreza |

Ibilbide osangarriak kirola egiteko egokitutako guneak dira, helburu argi batez: sedentariismoaren, obesitatearen eta elikadura-ohitura txarrekin eragindako gaixotasunen aurka borrokatzea. Sukarrietako Udalak bat egin dau helburu honez, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren laguntzagaz, osasuna hobetzeko Herritarren Partaidetza Planak (PPC) egitea babesten baitu azken honek. Prozesu hori ibilbide seguru batean Sukarrietan gauzatu da, ondo seinaleztatuta eta askotariko jendearentzat egokia dan diseinu eta profilagaz. Sukarrietako ibilbide osangarria ibilbide zirkular bat da, La Marisma parkean irteera eta helmuga daukona, udalerriko ohiko topagunea. Jarduera horrek, gainera, herritar gehienentzat zirkuituz kanpoko espazioak paseatzeko gune gisa irekitzea dakar, ez baitzegoen ondo markatutako eta egokitutako bidezidor edo biderik, eta ingurunean ibiltzeko ibilbide egokien eskariari lotuta, horiek erabiltzeko pizgarriak dira.

Ariketa fisikoa ohiko jarduera ez dan eta bere neurria egindako estimuluak, erraztasunak eta onura argi eta lorgarriak behar dabezen publikoari ibiltzeko gonbidapena da ibilbide osangarri hau.

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren laguntzagaz





NEGUKO onena Urdaibain



ARTADIA, ITSASO ZABALA OINETAN, PADURA

San Pedro basilizak, XV. mendekoa, Ibarrangeluko Atxarre mendiaren tontorra koroatzen dauena, zeruetzea begizatzen dau, padura, Urdaibaiko bokalea eta artadi kantauriar trinkoa menderatuz, aldameneko Ereñozar tontorreraino.



URDAIBAI BUKOLIKOA, INTIMOA, LANDATARRA



Ereño eta Nabarniz, Gabikako (Ereño) eta Ikazurietako (Nabarniz) ia birjina den paisaia ederra zeharkatzen dauen errepidetxo baten bidez batzen dira, denboran gelditutako txokoak, kultur sustraia transmititzen daberen ondo zaindutako baserri eta tipologia tradizionaleko etxetxetxoekaz.



DONE JAKUE BIDEA URDAIBAIN

Iparraldeko Bideak, Santiagorako biderik zaharrenak, galdutako protagonismoa berreskuratu dau. Urdaibaiko ibilbidea interes ekologiko handiko baso-bideetatik doa, ondare historiko eta erlijioso baliotsuetatik, Arratzu, Mendata, Gernika-Lumo, Ajangiz edo Morga bezalako udalerrietan.

JOSE ARRUE

barrutik






ENERGIA ARRANTZALEA

**MATXITXAKO,
GAZTELUGATXE, PORTUA,
BERE NORTASUNA ...**

Bermeo, tradizioz, itsasoagaz estu lotuta dagoen herria da. Gozatu portu zaharra, kale eta harresien arteko gurutzaketak, edota Ertzilla Dorre historikoa, Monumentu Nazional izendatua (1943), Arrantzaleen Museoa hartzen dauena bere baitan.



SAN ANDRESEKO ALTZORRA

Ibarrangeluko Elizak geldialdi lasaia merezi dau, zur polikromatuzko barrualdeko ganga zoragarria deskubritzeko. Apartekoa eta ikusgarria, bere edertasunagatik eta bere margoen motiboengatik harritzen dau. Zurezko arte fina, harria izateko ilusia sortzen dauena eta "Euskal artearen kapera sixtina" deitura merezi dauena.



PAISAIA BIZIZ IBILTZEAN

Gernika-Lumoko Errenteria auzotik, itsasadarraren bi ertzek, marearen erritmora, berdez eta urez egindako pasealekuak eskaintzen dabez, Urdaibaiko naturaren soinuen babesean.




KARAKOLAK NEGUKO PLATERA

Molusku txiki hau familia askoren Gabonetako mahaiko protagonista da. Jaso, prestatu eta jan, irauten dauen erritual baten parte da. Funtsezko osagaietako bat piper txorizeroz prestatutako saltsa da; gozoagoa izango da egun batean edo bi egun lehenago jalkitzen uzten badogu.



INTEGRAZIOA, EZ DA INTERPRETE BAT IZATEA EDO ZEINU-HIZKUNTZA IKASTEA, ERRESPETUA DA



Aitor Bedialauneta Arrate

Euskal Gorra Federazioko Presidentea

Formakuntza: Pedagogoa

Estatuko Gazteria Gorraren presidente ohia (CJS-CNSE)

Pertsona Gorren Estatuko Konfederazioa.

Urdaibai Magazinek Aitor Bedialauneta Arrate *Euskal Gorra*ren, Pertsona Gorren Euskal Federazioko presidenteari aztertutako gaurko sentsibilizazio eta erantzukizun sozialaren maila, gorren kolektiboak integratzen dabenez erronka soziokulturalak kontutan hartzeko eta berdintasun-egoera lortzeko.

Sarritan, sentsibilizazioa terminoak ondo erabiltzetik hasten da. Asier Bedialauneta: Gor-mutu terminoa, gorria ez ezik, ahots-kordetan arazoak daukeezan pertsonen kasuei dagokie. Pertsona gorren %99,99k hitz egin daiteke, ahots soinu desberdina dauke. Gorra ez entzutean ezin doguz geure ahots-kordak kontrolatu, ez dakigu ozen, baxu hitz egiten dogun... geure hizkuntza naturala zeinu-hizkuntza da. Bestalde,

garrantzitsua da argitzea ez dagoela zeinu-lengoiarik edo hizkerarik, zeinu-hizkuntza baizik. Hizkera hizkuntza batean adierazteko gaitasuna da. Zeinu-hizkera esatea gaztelaniaz edo euskal hizkera esatea bezala da. Zeinu-hizkuntza, hizkuntza bat da, gaztelania bezala edo euskara bezala. Ikerketa eta ikerketa asko Ingalaterratik iritsi dira eta gaizki itzuli da, *language*, hizkera gisa eta hizkuntza gisa itzul daiteke eta. Sentsibilizaziorik ez dagoenez, jendeak ez daki. Hezkuntzako profesionalak ez dauke argi, eta, beraz, oker irakasten dabe.

Zergatik "Ezer pertsona gorrentzat pertsona gorra barik" leloa?

Pertsona gorrik ez balego *Euskal Gorra* ez litzake existituko. Euskadiko pertsona gorren elkarte mugimenduak 40 urte daramatza, eta federazioak 40 urte dauzka. Euskadin aldaketa bat egon da pertsona gorren borrokari esker. Horiek barik ez legoke zeinu-hizkuntzarik, ez legoke aurrerapenik, ez ginatete federazioaz ari. Guk *Euskal Gorra* pertsona gorra ordezkatzeko doguz, 1980tik. Helburuak berbera izaten jarraitzen dau, denboretara egokituta.

Zein da *Euskal Gorra* Federazioko lana?

Euskal Gorra Federazioan sarean lan egiten dogu beste erakunde batzuek, adibidez, FEVAPAS haur gorren euskal federazioagaz. Haiek dira haur gorren familien arduradunak. Eta sentsibilizazio lana *Euskal Gorra*-etik egiten doguz.

Zenbat gor daude Euskadin?

4500 pertsona gor inguru. Beste gauza bat da entzumen-urritasuna, entzumen-galera, edo entzumena galtzen doan adineko jendea. Pertsona horiek *Euskal Gorra*-en zerbitzuak be izan daiekiz. *Gortek* be badago, entzumena galdu daben eta pixka bat galduta dagozen pertsonentzako aholkularitza, informazio eta gida zerbitzua. Duela gutxi honi buruz hitz egin neban Eusko Legebiltzarrean EITBri buruz egin neban ponentzian, irisgarritasunaren garrantzia azaldu neutsen. Pertsona gorrek zeinu-hizkuntza behar dogu telebistan, eta entzumen-galera dauken pertsonak azpitituluak behar dabez. Bereiztu egin behar da. Entzumena galdu eta zeinu hizkuntzarik ez dakien jendea dago. *Euskal Gorra* zabalik dago beharizan abaniko horri guztiari. Behar bakoitzera egokitzen gara, ez dago pertsona gorren mota bat.

Irisgarritasuna hobetzeko plataforma digitalak sortu dozuez, hala nola web orri bat eta Internet bidezko telebista bat, *Zeinu.tv*. Oztoporik gabeko informazioa...

Zeinu.tv 2010ean sortu zan, lehen urratsa, eta EITBgaz hitzarmen bat dauko; horren bidez, albisteak lagatzen deuskuez, eta guk zeinu-hizkuntzara itzultzen doguz. Pertsona gorrek informazioa izan daikezan lanean ari gara baina ez da irtenbide egokia. Gor asko dago eta gero eta gehiago nabaritzen da pertsona gorrek informazioa lortzeko, ulertzeko... aukerak bilatzen dabezela. Urtero 35.000-38.000 bisita izaten doguz. EITBk zeinu-hizkuntzagaz eta azpitituluak be emititzea da geure helburua. Guk zergak ordaintzen doguz, EITB telebista publikoa ordaintzen ari gara, ba egokitu daitela zerbitzua guregana.

Euskadin aldaketa bat egon da pertsona gorren borrokari esker. Horiek barik ez legoke zeinu hizkuntzarik, ez legoke borrokarik, ez ginatete federazioaz ari. *Euskal Gorra* pertsona gorra ordezkatzeko doguz, 1980tik.

Zer bide erabiltzen dira eguneroko komunikazio-oztopoak ezabatzeko eta pertsona gorra euskal gizartean erabat integratzea eta parte hartzea lortzeko?

Gaien eta esparruaren araberakoa da. Hezkuntza arloan, interpretea baliabideetako bat izango litzake, osasun arloan be interpretearen baliabidea jartzen dogu, *Euskal Gorra*-etik jartzen dogu. Medikarengana joateko

beharra daukeen pertsona gorrek interprete zerbitzua eskatzen dabe, eta hori doakoa da Eusko Jaurlaritzaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren finantzaketari esker. Interprete gehiago behar dira, ordu gehiago, bai, baina arazoa ez da hori bakarrik. Telefonozko hitzordu sistema da gure protestetako baten arazoia. Espezialistagaz hitzordua hartzeko senideren baten telefonoa emoteko eskatzen deusue, hitz egiteko, baina zer gertatzen da nire familiak nire gaixotasunaren barri izatea gura ez badot? Beste baten menpe egon behar dot. Geure beste helburuetako bat, Osakidetzagaz lan egitea da, irtenbideak bilatzeko, irisgarritasuna bermatzeko geure pribadutasuna errespetatzeko. Orintxe bertan mediku



ELIKAGAIEN SEGURTASUNA ETA INGURUMEN OSASUNA

Laborategia

Esperientzia eta espezializazioa Ur eta Elikagaien Analisisirako Laborategi Mikrobiologiko gisa, hala nola, barneko airearena.

Aholkularitza

Aurreratutako irtenbide teknologikoen Aholkularitza, Diseinua, Aplikazio eta Kontrola.

Prestakuntza

Elikagaien eta Ingurumen arloetan prestakuntza eskaintzen dugu, pertsonen euren lanpostuetarako behar duten ezagutza-maila handitu dezaten.



San Isidro II industrialdea, Idarsolo katea 15 - 3.2 bulegoa, 48160 Derio

batzuk bai moldatzen dira, ahalegintzen dira, baina beste batzuek ez dakite zer dan pertsona gorra izatea. Borondatearen menpe gagoz, pertsonaren menpe gagoz.

Beste adibide bat, banketxeen zerbitzuak dira, telefono batera zuzentzen jatzue, txartel bat aktibatze edo baliogabetzeko. Deitu eta esaten deuste, nor zara? Noski, Interpretateak erantzuten dau, eta ez nik. Eta ukatu egiten badeuste. Nola kudeatzen dot nik dei hori? Nik ezin dot deitu... gauza asko dira. Egia bada gero eta pertsona gehiagok dakitela zeinu-hizkuntza, baina apurka apurka. Lehen ez zeukon zerikusirik, lehen zeinu-hizkuntza debekatuta egoan. Hezkuntzan debekatuta egoan. Zeinu-hizkuntzan hitz egiten bazendun, gor bihurtzen zinela uste eben. Urteen poderioz ikusi eben ezetz, bardin jarraitzen genduela eta egoera okerrera zihoala. Komunikazioak okerrera egiten ebala, ez ebeela ezer ikasten... beren hizkuntza naturala zeinuena dalako, logikoki.

Maila sozialean, kulturean... oro har, esan daikegu sentsibilitateak bizitzako alderdi gehiago hartzen dabezela?

Bai, zalantza barik. Konparatuz gero, egungo egoerak ez dau zerikusirik. Hezkuntzaren arloan, are gehiago. Lehen, gorren ikastetxeak bakarrik egoazen. Orain bilakaera bat dago, baliabide gehiago eskaintzen dira, pertsona gorak integratzeko interpreteak dagoz, baina oraindik aurrera jarraitu behar da, %100eko integrazioa lortu arte.

Eta Busturialdean zein da irisgarritasun maila?

Ni erdi Artiakoa naz. Nire amaren familia Gauegiz Arteagakoa da, Portuas auzokoa. Beti etortzen gara Gauegiz Arteagara, asteburuetan, udan, denboraldi puntualatan... Nire haurtzaroa han bizi izan dot. Busturialdean ikusten dogu bai egon dala eboluzio bat. Gernika-Lumon, Bermeon... zeinu-hizkuntzari buruzko ikastaroak eskaintzen doguz, eta irakasleek *Euskal Gorrak*-ekoak izaten dira. Orain arte ez egoan ezer eta orain pixkanaka eskaria hazten ari da. Oraintxe bertan Urdaibain badago jendea, ikastaro horiei esker zeinu hizkuntza dakiena. Gero eta jende gehiago joaten da ikasten, gutxienekoa da, baina zeinu-hizkuntza apur bat badakite. Urrats bat da.

Sentsibilizazioa gakoa da diskriminaziotik urrun dagoen aukera-berdintasunaren egoera lortzeko

Nueva Europak Bizkaiko Foru Aldundirako kudeatutako Urdaibaiko Ibilbide Historikoetan be zeinu-hizkuntza barneratu dabe. Abuztuan Arrolako aztarnategi arkeologikoa bisitatu gendun interpreteagaz. Liburuxkatik abiatuta, zabalkundea egin gendun geure esparruan, eta esperientzia arrakastatsua izan zan. Bete egin gendun.

Eskertzen deusuegu ideia, berretsi dozuena, ahalegina, interpreteekaz egokitu ahal izatea. Eskerrik asko pazientziagatik. Oso garrantzitsua da urteetan zehar izan dozuen pazientzia bisita errealitate bihurtu ahal izateko.

Hezkuntza mailan, ikastetxeekaz lan egiten dozue? Informazioa, aholkularitza ... eskaintzen deutsezue?

Irakaslegoagaz, orain arte ez da ezer egon.

Nire ideia da protokolo bat garatzea ikastetxeek jarraibide batzuk izan ditzaten, beren ikastetxera iristen den haur



Aitor Bedialaunieta hitzaldi baten.



EUSKAL SOUVENIRS



Andra Mari kalea, z/g
Gernika - Lumo (Bizkaia)
94 625 19 30
www.euskalsouvenirs.com



@euskalsouvenirs



Lejarraga

BITXIGINTZA - ERLOJUGINTZA

Adolfo Urioste, 2
Tlf: 946 25 06 30
GERNIKA-BIZKAIA

gorra hartzeko, nola jokatu jakin daiten. Eusko Jaurlaritzak sail bat dauko, Berritzegune, eta honek bere funtzioan be ikasle gorrek barneratzen dauz. Bainanik iaz hartu neban kargua, eta egia da gauza batzuk lantzeke dagozela eta beharrianak sortzen doazela. Apurka apurka aurrera egingo dogu.

Zure kasuan, adibidez, 27 urte dozuz. Nolako izan zan zure eskolatzea?

Garai batean, pertsona gor guztiak pertsona gorren ikastetxean egoazan, besteengandik bereizita. Nire gurasoak gorrek dira eta Bilboko gorren ikastetxe batera joaten ziran. Baina nik Bergaran ikasi neban, integrazioarako ikastetxe bat egoalako. Nik ordu batzuk ikasle gorrekaz bakarrik nebazan, eta gainerako eskola-orduak entzuleekaz ziran.

Nahiz eta pertsona gorrentzako interprete bat edukitzea be ez dan nahikoa. Pertsona gorrek zeinu hizkuntza baino gehiago garelako, kultura bat da. Badira guk entzuleen gizartetik sumatzen ez doguzen gauzak. Adibide bat, zuen txistek guri ulertzea kosta egiten jaku, eta pertsona gorren txistek zuei ulertzea kostatuko litzakizue. Kultura bestelakoa da.

Zuek etengabe dozue entzumenezko informazioa, egunero, ordu guztietan, nik ez. Errealitatea atzemateko modu desberdinak dira. Horregatik, guk, gauzak ulertzeko, denbora gehiago behar dogu. Ikasteko orduan be desberdinak gara. Ezagutza eskuratzeko denbora gehiago behar dogu, adibidez, matematikaz.

Integrazioa lortzea guztiok enplegua eskuragarria izatea da. Nola egiten dozue lan horretan *Euskal Gorrek*-etik?

Pertsona gorrek enplegu arrunt eta duin batean lan egitea defendatzen dogu. Kontua ez da lanpostu bat oparitzea, logikoa danez. Pertsona gorrek normalean tituluak izaten dabez, ziklo ertaina, goi-zikloa, unibertsitatea ... ikusten dabe lan-eskaintza bat, eta elkarrizketa batera joaten direnean hautaketa egiten dabenek, jakiten dabenean hautagaia gorra dala eta atzera botatzen dabe.

Prestakuntza bera daukeen bi hautagai ikusten dabez, eta entzulea aukeratuko dabe. Argudioa komunikazioa da, baina hori niretzat aitzakia bat da. Gaur egun jar zaitezke harremanetan interpreteagaz, posta elektronikoz,

Zeinu-hizkuntza ikasteko edo interpretea eskatzeko informazioa dago *Euskal Gorrek* webgunean.

Zeinu-hizkera EZ
Zeinu-hizkuntza BAI

Gor-mutuak EZ
Pertsona Gorrek BAI

Pertsona gorren % 99,99k ahotsagaz hitz egin daikee.

whatsapp bidez... baina gor gehienek enplegu-zentro berezietan egiten dabe lan... errazana dalako.

Eta trebakuntzan... zer eskaintzen dozue zentzu horretan?

Trebakuntzarako *Euskal Gorrek*-en zeinu hizkuntzari buruzko ikastaroak ematen doguz, edonori, B2ra arteko komunikazio mailak, baina ez da interpretea izatea. Interpretearen gaia beste istorio bat da. Lehen, interpreteen goi zikloa Bilbon egin ahal zan, baina bi urte motz geratzen ziran. Orain Madrilera pasatu dabe, unibertsitateko 4 urte dira. Titulu hori gehiago bideratuta dago zeinu-hizkuntzara, gorren komunitatera, zeinu-hizkuntzaren historiara, baina ez da interprete hutsa. Agian garai batean bezala karnetaren gaia itzuliko dala uste dogu. Federaziotik kezkatuta gagoz irisgarritasunaren gaia zabaltzen ari garelako eta errekurtsioa gero eta gehiago eskatzen hasten direlako, baina mugatuta ikusten dogu gure burua, interpreterik aurkitzen ez dogulako, interpreteak falta dira.

Zeinu-hizkuntza ia zuon nortasun-ikurra da. Uste dozu gizartea prest dagoela *Euskal Gorrek*-en defendatzen dozuen hirueletasunaren aldeko apusturako?

Euskal Gorrek-ek hirueletasuna babesten dau, hau da, zeinu-hizkuntza irakatsi behar da, euskara irakasteko eta idazteko orduak, euskara ulertzeko orduak eta gero



Zaindu eta gozatu





Zeinu-hizkuntzan egindako bisita gidatua Arrolako oppidum-era. 2019ko uda.

ordu batzuk erdaraz. Elkar uler daigun, ahozko hizkuntzen artean euskara, gaztelania, ingelesa, frantsesa... guztiak dagoz. Kulturaren eta hizkuntzaren araberakoa da. Zeinu-hizkuntzaren barruan Espainiako zeinu-hizkuntza, Kataluniako zeinu-hizkuntza, Frantziako zeinu-hizkuntza... desberdinak dira. Batzuetan, elkarren laguntza behar izaten da.

Bi errealitate desberdin. Etorkizunean diferentzia hori mugatuko da? Zer beharko litzake?

Oraintxe bertan ez dago gorra izaten jarraitzeko egoera aldatuko dauen konponbiderik. Audifonoak, kokleako inplantea... laguntza teknikoak beti dira osagarri bat, ez irtenbide bat.

Posible ikusten dozu erabateko integrazioa?

Utopia bat da. Polita da. Erakunde inklusibo asko dagoz. Ikusten dozu eta esaten dozu, ze ondo, joango naz. Badakite zeinu-hizkuntza? Ez. Orduan, zer esan gura dabe inklusiboagaz? Integrazioa, interprete bat jartzea baino gehiago da. Egoerara egokitzen da, baina inklusiboak esan gura dau guk interprete barik elkar uler genezakeela. Hori inklusioa da. Aniztasun funtzionala bezala, lehen desgaitasuna, elbarritasuna... aldatzen doazen hitzak dira, baina bizitza bera da. Integrazioa orain inklusioa da, bihar beste hitz bat izango da. Integrazio perfektua % 100ekoa niretzat ez litzake interpretea, ez litzake zeinu-hizkuntza ikastea, niretzat garrantzitsuena errespetua da. Zuk pertsona gisa errespetatzen nazu, nire mailan, eta nik zure mailan errespetatzen zaitut. Ezin da izan zu ginetik egotea edo ni ginetik egotea.



Arrolagune
Arrolako Oppidum-aren Interpretazio Zentroa

VEN Y DESCUBRE
COMO SE VIVIA EN URDAIBAI
hace 2300 años

ZATOZ ETA EZAGUTU
ZELAN BIZI ZIREN URDAIBAIN
orain 2300 urte

Arrolagune:
Loiola Auzoa 4 - 48383 Arratzu (Bizkaia)



Bisitak: **Zapatu edo Domekatan**
Visitas: Sábados o Domingos



Ordutegia - Horario: **10:00h. - 14:00h.**

Tlf: 634 24 37 62

Email: arrolagune@visiturdaibai.com

www.visiturdaibai.com



Zein erronkei egin beharko geinke aurre epe labur, ertain eta luzean?

Zaila. Epe motz-ertainean, zeinu-hizkuntza errespetatzea. Jende askok modan bezala ikusten dau zeinu hizkuntza. Zeinu-hizkuntzako abestiak dagoz, zeinu-hizkuntzako enpresak ateratzen dira, baina zeinu-hizkuntza horren kalitatea?... kezkatuta gagoz. Orain, jendeak zeinu-hizkuntzan hitz egiten dau edozein modutan. Zeinu-hizkuntza errespetatzea da gure helburuetako bat. Imajina ezazue nik euskara pixka bat dakidala, ez daukat titulurik baina *euskaltegi* bat sortzen dot. Ezin da izan.

Epe ertainean, bizitza irisgarria izatea, telebista eskuragarria izatea, osasungintza irisgarria izatea, irisgarritasuna izatea esparru guztietan. Gutxienez, ogia erostera edo taxi bat hartzera banoa, jakin daiezala Egun on!, zeinu-hizkuntzan esaten,

Eta epe luzera, pertsona gorrek irisgarritasun osoa izan daiezala, pertsona normaltzat ikus gaitzabela. Gizarteko beste pertsona bat bezala. Gorra? Ez da ezer gertatzen.

Zer suposatu dau lehen urte honek *Euskal Gorra*-eko lehendakari gisa?

Federazioko lehendakartzari aurre egiteko gai ikusten neban neure burua. Pedagogia ikasi dot, prestakuntza

daukot. Gaztetan, Estatuko Gor Gazteen Presidentea izatera iritsi nintzan. Lau urtez egon nintzan idazkari-lehendakariorde gisa, eta bi urtez izan nintzan presidente. Nire familiak laguntzen eustan, eta esan neban: zergatik ez? Talde gaztea bilatu neban, lan egiteko gogoz, eta Euskal Gorra hartu neban, gauza asko egiteko gogoz. Lau urte dira eta batzuetan ezin nazela geratu pentsatzen dot. Talde bat egiten saiatu behar dot, sarean lan egin eta maila berean mantendu. Ez dot nik bakarrik lan egiten, hori garrantzitsua da.

Arrakasta izan daizuezan opa deusuegu, begirune individual eta soziala lortzeko egin dozuen lan nekazinean, "*irisgarritasuna*" ezinbestekoa baita bizitza oso baterako.



Edonora begiratuta ere energia berriztagarriak ikusiko dituzu

Energiaren Euskal Erakundeak ia lau hamarkada daramatzagu lanean, Euskadik **beharrezko duen energiarekin** bakarrik egin dezan aurrera. **Energia iturri berritzaileen, berriztagarrien eta onenen** aldeko apustua egiten dugu. Bitarteko tekniko eta giza baliabide onenekin. Ahalegin hori, denbora luzearen ondoren, **non-nahi ikus dezakezu**.

Allá donde mires verás energías renovables

En el Ente Vasco de la Energía llevamos casi cuatro décadas trabajando para que en Euskadi se consuma solo **la energía necesaria**. Apostamos por las **mejores fuentes energéticas, innovadoras y renovables**. Con los mejores recursos técnicos y humanos. Un esfuerzo que, después de tanto tiempo, es **visible allá donde mires**.



Eguzki Jaia

EGUNSENTIAREN ZAIN



Eguzki Jaia etxea 1912an eraiki eban Eako José Antonio Galdiz y Mendiola medikuak, Bizkaiko Bankuko kontseilariak. Mario Camiña arkitektoak diseinatu eban, Euskal Herriko arkitektura modernistaren funtsezko figura. 2007an Monumentu izendatu eben eta Eusko Jaurlaritzaren Ondarearen Inbentario Nagusian sartu zan. Eraiki zanetik 2001ean saldu zan arte, Galdiz familiarena izan zan, marinel leinukoa. Gaur egun, esku pribatuetan mantentzen da.



Eguzki Jaia XX. mendea, 50 hamarkada



Domingo Galdiz, lorategian

Eguzki Jaia bere diseinuagatik, bere kokapenagatik be nabarmentzen da. Urtza auzoan dago, Bedaronan, Apikale muinoaren tontorrean, itsas zabalaren gaineko itsaslabarraren ertzan, itsasoaren gaineko landa ingurune ikusgarrian. Zuhaitz espezie ezberdinak daukozan lorategi batez inguratuta dago, magnolio bat, hagin bat, gereziendoak eta limoiondoak kasu. Talaia aparta da, Gipuzkoako kostalderaino iristen den mendi-lerroaren ikuspegi argiaz gozatzeko aukera ematen dauena, Belartxandi mendia, Iluntzar mendia, Ispaster herriko errota, Kalamua mendia (Markina eta Ermua artean), Otoio eta (egun argietan) baita be Getaria, Jaizkibel...

Bere izena, inaugurazio egunean piztu zan eztabaida bati zor deutso, eguzkia nondik ateratzen zan. Festa egunsentira arte luzatuz ebatzi zan eztabaida, eguzkiaren irteera egiaztatzeko. Hortik dator bere *Eguzki Jaia* izena (eguzkiaren festa).

Domingo Galdiz Hormaetxeak, Jose Antonioren bigarren semeak, etxea heredatu eta gaur egun ezagutzen dogun bezala eraberritu eban. Mercedes Longa Galdizegaz ezkondu, Getxon bizi izan zan, eta denboraldi luzeak pasatzen ebezan *Eguzki Jaian*.

Eguzki Jaia 2007an izendatu eban Eusko Jaurlaritzak monumentu, Euskal Kultura Ondarearen Inbentario Orokorrean sartuta. Monumentu izendapena eraikiner bertara hedatzen da, non Mario Camiña arkitektoak viener modernismoaren bere berrirakurketa pertsonala aplikatu eban, eta inguratzen eban ingurunera. Katalogazio horren bidez, eraikinaren ingurumen, estetika eta ikusmen-balioak zaindu gura dira, landa eta lorategi-ingurune koherente batean, eta, horrela, eraikina inguratzen daben eta haren ingurumen-balioa mantentzen laguntzen daben elementuak zaindu.

Eguzki Jaian lerro geometriko dotoreen diseinua nabarmentzen da. Teilatu laua dauken malda handiko isurialde ugariko estalkia nabarmentzen da, forma bertikalak, forma geometriko urdinez estalitako erremate triangeluarrak daukezenak, eta leihoak, zurezko veneziar leihatila gorriekaz.

Etxeko sarreran, hesi-atea eta apaingarri triangeluarrak daukozen etxola bertikal berezi bat dagoz, eraikin nagusiaren diseinuari erantzuten deutsozenak. Etxola hori transformadore elektriko bat izan zan garai baten, etxebizitzari hornidura bermatzeko, zeina autosufizientea baitzen, eta urez nahiz energia elektriko bere burua hornitzen eban.


Etxebizitzak garai hartarako ez ohiko kokapena dauko, hainbat mailakaz. Erdisotoan sukaldea dago. Lehenengo solairuan aretoak eta jangela, bigarren solairuan gela nagusiak; eta teilatupekoan, kapera bat.

“Gabriel Arestiren Etxea” poesia jardunaldiak

Paisaia honen edertasuna, Bedaronako kostaldera agertutako *Eguzki Jaia* etxeagaz, inspirazio iturri izan da artista askorentzat. Kasuan kasu, Unamuno, bere gutunetan Bedaronako kostaldeari omenaldi bat egin eutson, eta Gabriel Aresti, olerki bat eskaini eutson, *“Enaden Begiak”*, inguru natural hau arriskuan ikustean, inguruan zentral nuklear bat eraikitze asmoaren aurrean.

2003. urteaz geroztik Gabriel Arestiren omenezko poesia jardunaldiak egiten dauz Eak. *Eguzki Jaia* eta Apikale inguru idilikoa izan da zenbaitetan poesia jardunaldi hauek ospatzeko aukeratutako lekua.

Kalerik Kale



Imanol Arriandiaga, Aita Arriandiaga

AITA ARRIANDIAGA, ELANTXOBEKO EUSKALZALE NEKAEZINA

Elantxobeko galtzada bihurri eta bereizgarriak, zati batean bere izena daramanak, euskara garbiaren defendatzaile sutsu honen esentzia gordetzen dau. Euskararen ikuspegi eztabaidagarriak langile apal baina nekaezin hau Resurrección María de Azkue eta Sabino Arana bezalako euskal kulturaren "*handiekaz*" hartu-emonak izatera eraman eban. Gutxik dakite baina geure euskarak asko zor deitso Aita Arriandiagari.

Imanol Arriandiaga Gorozika Elantxoben jaio zan 1876ko apirilaren 20an. Gaztetatik argi eukon bokazioa. 11 urte gaz, Balmasedako Jesusen Bihotzaren Semeen Ikastetxean sartu zan bere karrera erlijiosoa hasteko. Teologia, Morala eta Eliz-Araudiko klaseak jaso ebezan. Meza ematera iritsi zan eta laster bere nagusiek Erromara bidali eben bere ikasketetan sakontzera. 1903tik aurrera Morala irakatsi eutsen bere kongregazioko kide gazteei Logroñoeko Santo Domingo de la Calzadako klaretianoetan. Ameriketara be pasatu eban denboraldi bat. Izan be, haren hainbat lan Brasildik sinatuta datoz, hala nola Brasilgo Mattogrossotik 1911n emandako "Euskal egutegia". Handik bidali zan be "Euzkadi" aldizkarira 1913an "Gorputz" artikulua. Arriandiagak luma arin eta zorrotza eukan.

Aita Luis Villasantek honela deskribatu eban: *"Apaiz ordenatua, Erromara bidali eben zuzenbide ikasketetan espezializatzen. 1903-1913 hamarkadan Teologia Moraleko katedra zuzendu eban Santo Domingo de la Calzadako klaretiar estudioan (Logroño). Ondoren, Kongregazioko kargu gorenak bete ebezan, baita Kongregazioko idazkari nagusi kargua be. Kargu hauengatik Madrilen eta Erroman bizi izan zan urte askotan. Beire herrian (Nafarroa) zendu zan. Moralan eta zuzenbide ikasketetan nabarmendu zan gehien. Latinez eta gaztelaniaz hainbat idazki moral eta kanoniko argitaratu ebezan."*

Baina aita Arriandiagari bere bizitza osoan zehar zerbaitek kezkatu baeutsen, bere ama hizkuntza izan zan, ez eban bere jaioterrian amarengandik ikasi eban euskara galdu gura. Baina bere bidaia eta urrutiko egonaldi luzeek, "ia" ahaztera eraman eben. Izan be, behin amagaz gertatutakoak bultzatu eban euskara defendatzera eta haren alde lan egitera. Ama ikustera joan jakon, eta hark ez zekien gaztelaniaz. Baina Arriandiagak euskara ikasia ahaztua eban, eta penagarria gertatu jakon amagaz modu irekian ezin komunikatzea. Orduan hasi zan barriro euskara ikasten, hitz eginez eta idatziz. Arriandiagak deskubritu eban zein ederra eta aberatsa zan bere ama hizkuntza, euskara.



Resurrección Maria de Azkue
"Euskal Izkindea"ren egilea.



Sabino Arana,
euskararen mugimendi garbizalearen buru.

Azkuetik Aranara Arriandiagaren bitartez

Gutxitan aitortu jako Imanol Arriandiagari mende hasierako Bizkaiko literaturaren bilakaeran izan dauen garrantzia. Aranaren eskolako jarraitzaileak sutsuena izan zan. Aranistek euskararen alderdi guztiak eta bereziki hiztegia hartu ebezan mugimendu garbizalea osatu eben. Arriandiagari Aranako eskola barruko ahozko morfologia lanak egotzen jakoz. Baina Arriandiaga eta bere euskararen aldeko lanak ez ziran berberak izango Resurrección Maria de Azkue ospetsuaren figura barik. Izan be, Arriandiagaren obra ezin da ulertu Azkue eta bere "Euskal Izkindea" barik.

Azkue erreferente bat da euskal kultur jardueran. Euskara bateratzeko garai garrantzitsuenetako batean kokatzen da haren obra. Hasiera batean, idatzizko euskalkiaren bateratzearen alde lan egin eban, eta *Euskaltzaindiaren* sorreratik, euskararen alde.

XIX. mendearen amaieran idatzitako *Euskal Izkindea* bere gramatika liburua euskaraz idatzitako lehen gramatika da. Lan hau izan zan mugimendu garbizalea neurri handi batean sortu eta bultzatu ebana, urte batzuk beranduago Azkuek gogor aurka egingo eutsen. Azkue gaztearen lanak eragin handia izan eban XIX. mendearen amaieran sortutako eta XX. mendearen erdialdera arte garatutako Bizkaiko euskalkiaren eredu idatzian. Arriandiaga bezalako garbizaleek erabiliko eban eredu idatziaren oinarriak finkatu ebezan.

1890-1936 aldian korrante nagusia garbizalea zan. Alde batetik, Sabino Aranak eta bere jarraitzaileek osatutako Aranaren eskola egoan, eta, horren aurrean, Azkueren jarrera, euskara herrikoien alde egiten ebana.



Barrenkale, 13
48300 GERNIKA

Tlno. 688 649 894
endika.kafetegia@gmail.com



GARRAIOA,
BILTEGIRATZE,
BANAKETA...

Txaporta industrialdea, 2-1
48300 Gernika – Lumo
(Bizkaia)

Tel. 94 625 03 85
Tel. 94 625 75 40
e-mail: lgk@lgk.es



Mitxelenak garbizaleek sortu eta erabilitako eredu idatzia hiperbizkaiera izendatu eban, gainerako euskal euskalkiekaz alderatuta ezberdintasun gehien eukazen aditzak eta terminoak aukeratzeko joera ebalako. Ildo horretan nabarmendu zan Arriandiaga.

Baina argi dago Arriandiagaren lanak asko zor deusola Azkueri.

Azkueren eta Arriandiagaren arteko harremanak 1896an hasi ziran, aipatutako Euskal Izkendearen bidez. Aldundiko Institutuko irakasleak bere gramatikaren ale bat bidali eban Santo Domingo de la Calzadako klaretiarren mintegira. Han egoan Imanol Arriandiaga bere ikasketak egiten, eta hilabete gutxiren buruan gutun bat idatzi eutson bere eta ikaskide batzuen izenean, oparia eskertu eta hainbat arazo gramatikalen inguruko galderak eginez.

Lehen gutun horren ondoren, Arriandiagak Azkuereztako gutunak idazten jarraituko dau soilik bere izenean; bigarrena, gaztelaniaz idatzita dago, agian euskaraz oraindik oso ondo moldatzen ez zalako; bigarren honetan be, eskerrak eta alabantzak zuzentzen deusoz bere irakasleari. Azkuek eskeronez erantzun eutson bere ikasle abantailatsuenaren miresmenari, eta *Euskalzale* aldizkariaren eta *El Euskara* edo *el Bascuence en 120 lecciones* liburuaren aleak bidali eutsozan. Arriandiagak detaile hori eskertu eban 1897ko uztailko bere gutunean. Gutun honegaz batera, bere aditzari buruzko lan bat be eskaini eutson. Azkuek, baina, ez eban erantzunik bidali. Arriandiaga ikasle ona zan, euskarari dagokionez bereziki. *Euskal Izkindea* jaso ebanean 20 urte eukazan, eta 21 urtegez egin eban lehen lana.

Denboragaz Arriandiaga eta Azkueren arteko harremanak hotziztuten joan ziran, 1902. urtera arte ez zan gutunik gorde. Lau urteko aldi honetan Arriandiagaren bidea asko aldatu zan, bere euskara eredu aldatu eta Aranaren korrontearen jarraitzaile fidela egiten da. Azkuek eta Arriandiagak nor bere bidetik abiatu ziran. Lehenak,

bere hiztegi- lanen bidez, *Euskal Izkindean* jorratutako garbitasuna alde batera utziz, edo berak *"txukuneria"* deitzen eban bezala, eta bigarrenak, aldiz, ahalegin berrituratzaileak areagotuz.



Arriandiagak Azkueri bidalitako azken gutuna, ez da jada ikasleak irakasleari zuzendutakoa, baizik, kideen arteko eta 1916. urtekoa da. Orduetik ez ziran idatzi bi euskaltzaleak. Arriandiaga eskola garbizalearen buru egoan, eta Azkue, barriz, kontrako talde baten buru.

Arriandiagak euskarazko aditzei buruz argitaratu eban lehen obra *"Notas sobre el verbo euskerico"* izan zan. Baina bere obra oparoak gaztelaniazko, euskarazko eta latinezko lanak utzi ebezan. Gaztelaniaz, *"Ilustración del Clero"* Madrilgo aldizkarian argitaratu eban ia guztia.

Euskarazkoak *"Euzkadi"*, *"Eusko Deya"* eta *"Euskerea"* aldizkarietan. Arriandiagak *"Mibibus"*, *"Aripidedun"*, *"Aztertzalia"*, *"Argorri"* edo *"Omabeitia 'tar Karmel"* bezalako ezizen ezberdinekaz sinatzen ebezan

bere lanak. Bere lan batzuk aipatzearren: *"Notas sobre el verbo euskerico"* (Euzkadi, 1907), *"Umiak autortuten eta jaunartuten"*, *"Josu Kistoren antzarpena"* (Euzkadi, 191), *"Jaunartazko itaune-erantzunak"* (Euzkadi, 1913), *"Calendario vasco"* (Euzkadi, 1911), *"Conjugación sintética del verbo comenzado por consonante"* (Euzkadi, 1913), etabar.

Argi dago euskarak asko zor deusola Aita Arriandiagari, elantxobetar apal baina langile eta adimentsuari, berraurkitu doguna eta ahantzuran utzi behar ez dogun horri.



Orain eta beti


EUSKADI BASQUE COUNTRY



GARAPEN
JASANGARRIRAKO



HELBURUAK



Euskadi, auzolana

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO



TXIPIROIA, moldakorra eta nortasunduna

Txipiroi-kazola on bat bere tintan euskal sukaldaritzaren aurkezpen-txartelik onena da. Dastatzeko plazer handiak bere kolore beltz biziaren inpaktu bisuala gainditzen dau. Molusku zefalopodo hau, izenez bezala kolorez aldatzen dana, urteko egun guztietan gozoa da.



Txipiroi, txibia, tximinoi, txipilu, begi-handi... gauza bera da. Etimologikoki, bere izenak, antxinako tintontzi bati egiten deutso erreferentzia, latinez *calamarioa* dena, eta bere barne maskor "luma" formatik eta bere tintazko poltsatik dator. Hori litzake bere ezaugarriarik deigarriena, baina molusku zefalopodo honek (oinak buruan), gainera, gorputz gihartsu eta luzanga bat dauko, zilindro-formakoa, triangelu formako bi hegaletan amaitzen dana. Txipiroiak bi brankia daukoz, eta bihotz sistemiko batek eta bi brankiek osatutako zirkulazio sistema. Masailezurrean erredula dauka, jaten dabezen arrainak eta ornogabeak karrakatzeko egokitutako mihia. Txipiroia propulsiotz mugitzen da, bere gorputz gihartsua uzkurto eta erlaxatu egiten da ura hartu eta zurrustan botatzeko. Horrek azkar igeri egitea eta norabidea bat-batean aldatzea ahalbidetzen deutso. Ikusmen bikaina dauko eta, gainera, iheskorragoa egiten deutsoezan beste defentsa sistema batzuk daukoz, bere mimetismoa kasu, kolorez aldatzen da bere emozioen arabera.

300 espezie baino gehiago dagoz, 29 familatan antolatuta, eta 5 cm eta 20 cm artekoak izan daitezke. Txipiroi betatua, adibidez, arrosa edo zurixka kolorekoa, 95 cm be neur daiteke. Baina badira txipiroi erraldoia (*Architeuthis dux*) edo Txipiroi kolosala (*Mesonychoteuthis*

hamiltoni) be, munduko ornodunik handiena, ornogabe guztien burmuin handi eta garatuenagaz eta edozein izaki bizidun baino begi handiagokaz.

Geure kostaldean harrapatzen dan espeziearen izen zientifikoa *Loligo vulgaris* da. Gizartean bizi dan espezie erdipelagikoa da. Bere habitata itsaso barnekoa da 200 metro baino gehiagora arte, baina ugaltze garaian, apirila eta abendua bitartean, kostaldera hurbiltzen da banku txikietan. Mediterraneoaren eta ekialdeko Atlantikoaren artean mugitzen da txipiroia, Ipar itsasotik Gineako Golkora.

Arrasteko sareekaz eta artisau-aparailuekaz harrapatzen da. Izan be, txipiroi gozoena gure kostaldean banan-banan hartzen dana da, "poterako" txipiroiak. Sareekaz hartutakoak baino zaporetsuagoak dira eta ehundura hobia dauke hauek.


Txipiroiaren tamainak be aldatu egiten dira, adinaren arabera, 30-40 cm haz daiteke, eta, oro har, ez dira 15-25 cm baino handiagoak izaten. Euskadin arrantzatzen dan txipiroia europarra da, Badira tamaina txikiagokoak bereziki estimatzen dabezenak, udan bereziki arrantzatzen direnak. Irailetik aurrera hazten hasten dira, eta gero eta leunagoak bihurtzen dira. Txipiroi handienari "begi-handi" deritzogu Gabonetako kanpainen gehien kontsumitzen denak.

Geure osasunerako onurak

Txipiroiak mineraletan aberatsak dira, eta, beraz, energia emoten dabe, oroimena errazten dabe, zelulen zahartzea geldiarazten dabe eta geure defentsak zaintzen dabez. Tiroide guruinaren erregulatuzaileak dira. Ilea, atzazalak eta haginak indartzen dabez. Txipiroiek balio biologiko handiko proteinak eta B3, B12, A eta D bitaminak eskeintzen dabez. Txipiroi errazio batek gomendatzen dan B12 bitaminaren ia %100a ematen dau.

Sukaldaritzan, euskal txipiroien prestakuntzarik tipikoena bere tintan da. Batzuek erroak barruan sartuta eta zotz batez zigitatuta sukaldatzen ebezan. Txipiroi saltsa handia da handien artean, gure saltsa berde, pil-pil edo bizkaitarrar saltsakaz partekatzen dau protagonismoa. Txakolinetan onduta edota kipulagaz nahastuta be prestatu ahal dira txipiroiak. Baina txipiroia sukaldean esker onekoa da, eta plantxan kozinatuta be aurki daikegu, beteak, arrozagaz... Baina nagusiak bere tintan prestatutakoak dira. Saltsa hori, berez, tintaren kolore eta zaporeagaz aberastutako barazki-krema da. Bezperako txipiroiak prestatzea gomendatzen da, eta hurrengo egunean berotzeko orduan egositako tinta pixka bat gehitu, distira eta lurrin gehiago emoteko.

On egin!



TXIPIROI-TINTABA AL ZENEKIEN?

- Txipiroiaren tinta ondestearen ganean biltegitratzen dan eta sifoi bidez kanporatzen dan pigmentu bat da. Freskoan, sugeen antzeko pozoia da, baina toxikotasuna galtzen dau sukaldean.
- Zefalopodoen tintak aminoazidoak eta polisakaridoak daukez, depresioa bezalako gaixotasunak prebenitzeko eta sendatzeko oso eraginkorrak direnak. Japoniar zientzialariek be, tintaren substantzia kimiko batzuetan, jarduera antitumoralak aurkitu dabe.
- Sepia-tinta erabili ohi da saltsa prestatzeko, lodiagoa eta sendoagoa dalako, argi gehiago dagoen gainazalean bizi dalako sepia.

"El Amparo" jatetxearen errezetaren laburpena (Bilbo, 1952)



OSAGARRIAK 4

pertsonantzako:

kipula zuriak, berakatza, gatza, azukrea, olioak, tomateak, perrexilak, piperbeltz fina ingelesa, ogia, txipiroiak

TXIPIROIAK TINTAN

Gutxienez lau uretan garbitzen

dira: lehenengoan tripa eta ezpata banatzen dira. Sabelari tintazko poltsatxoak kentzen jake, eta gorde egiten da. Bigarren uretan ondo garbitzen dira tripa edo zarpak. Hirugarren uretan tripa astindu eta alkandorei buelta emoten jake. Eta laugarrenean, zarpak pasatzen eta sartzen joaten dira beren gorputz edo alkandoratan, tamainaren arabera, jada kazolara sartuz, irakiten egongo dana kipula zuri txikituagaz, perrexilagaz, berakatzagaz, piperrauts finagaz, gatzagaz, baso eskas bat olioagaz eta txikituako tomate garbiagaz. Su biziartean jartzen da eta, ondo irakiten, jibioiak sartzen dira, ahoa agerian utziz, inoiz ez hiruzpalau dozena baino gehiago, gehienez bost, txikiak badira. Su neurritsuan irakiten uzten jake, behar dan guztietan irakiten, kipula egin arte eta jibioiak urre kolorea izan arte. Txipiroiak, oso samurrak izanagatik, kipula baino lehenago egiten badira, kazola batera atera eta kipula bakarrik egiten uzten da, ondo bigun eta lodi egon arte. Iragazki eta jibioi eta tintan gainetik pasatzen da, garbitu ondoren, mortero batera bota eta birrin-birrin egiten dira, ogi-mami pixka bat botaz; ur pixka batez nahastu dira, eta birrin egiten dira. Dena koiara batez nahastu, aztiro irakiten jartzen da. Jibioiak oso beltz geratu behar dira; gatza probatu eta azukre hautsa botatzen jake.

"El Amparo" ogi frijituagaz saltsontzian zerbitzatzen ebezan baina arroz zuriagaz prestatzeko ohitura be badago.

On egin!

Berdean

ITSAS EKOSISTEMA

KOSTALDE ASKOTARIKOA ETA BIZITZAZ GAINEZKA

Itsasoaren handitasunean ez dago inolako hesirik, baina sakontasunaren eta kostalderako distantziaren arabera aldeak badagoz, eta horrek aukera emoten dau organismo mota ezberdinek okupatutako habitatak bereizteko. Itsaslabarretatik itsas hondoraino, marearteko eremutik igarota, non mareen jokoak Urdaibaiko itsasertzeko paisaia sei ordutik behin aldatzen dauen... Espazio-aniztasun ederra, paisaia apartekoa sortzen dauen fauna eta flora baliotsuagaz.



Kostaldea muturreko egoeretako eremua da, eta Urdaibain malda handian edo itsaslabar irekian dago, Kantauri itsasoaren, haren gazitzairearen eta haizearen eraginpean. Horren guztiaren ondorioz, gutxi dira espazio horretan bizirik irauteko gai diren landare espezieak. Urdaibaiko kostaldean hiru habitat mota bereizten dira: itsaslabarrak; kalak, hondartzak eta dunak; eta azkenik ibaiak.

Azoreetako haize bortitzek eta uda bakoitzean harritzen gaituzten galernek geure **itsaslabarren** profil malkartsua landu dabe, hainbat kilometrotan zehar hedatzen direnak. Baldintza gogorretan bizirik irautea lortu daben landare espezie urriek sustrai sendoak daukez, haitzei heltzeko gai direnak. Itsas kulantriloa (*Asplenium marinum*), habitat honetako iratze eskusiboa eta itsas belar ale isolatuak (*Crithmum maritimum*) eta itsasoko haguak (Plantago maritima) adibide batzuk dira. Berezko lehen zuhaitza Tamariza da (*Tamarix gallica*), haizeak daraman maldatik igotzen dan salitreari eusteko gai dena.

Bizitzeko desegokia dan habitat honek bizi-aukera gutxi eskaintzen deutsez ornodunei. Itsaslabarretan anfibioren presentzia ia hutsa da, eta narrastien artean musker arrokatsuak (*Podarcis muralis*) eta iberikoak (*Podarcis liolepis*) baino ez dira aipatzeko duinak. Gaztelugatxeko San Juanen sartu da Pitiusetako muskerra (*Podarcis pityusensis*).

Itsasertzeko eremu osoan, hegaziak nabarmentzen dira ingurune etsai baten baliabide ugariez baliatzeko daukeen gaitasunagatik, itsasertzeko aniztasun baliotsua emoten dabe. Horrela, ingurunea behar bezala erabiltzen dabe, eta, kasu batzuetan, populazio egonkorrak izaten dabez.

Marearteko zerrendatik itsaso zabaleraino uraren sakonerak eta mareek baldintzatutako hainbat habitat bereizten dira.

Marearteko eremua marea baxuagaz agerian geratzen dan zerrenda da; beraz, haren hedadura aldatu egiten da kostaldeko maldaren eta marearen altueraren arabera. Ekosistema honen aberastasunaren adibide bat Ogellako marearteko zabalgunea da. Hemen itsasbeherak sakonera ezberdineko eremu harritsu eta putzu zabalak uzten dauz agerian, itsas biodibertsitate fin eta harrigarri bategaz. Beste espezie baliotsuen artean, *Fucus chalonii* alga endemikoa nabarmentzen da.

Itsaso zabalean, Matxitxako lurmuturraren eta Elantxobe lurmuturraren artean, lurrazaletik sakonera handienetaraino, urpeko habitat oso ezberdinak dagoz, hareazkoak edo mistoak, faunaren aberastasun eta edertasun handiagaz. Neguko 10-12°C-tik udako 20°C-ra bitarteko temperaturagaz, Busturialdeko kostaldea bainatzen daben uretan ohikoenak diren itsas espezieak moluskuak dira, hala nola magurioak, lapak, ostrak, olagarroak edo sepiak. Krustazeoak, hala nola, kiskilla, lanpernak, bogabantea eta itsas karramarroa eta arrainetan lupia, muxarra, berdela, txitxarro edo salmonetea. Noizbehinka zetazeo handiak ikus daitekez, hala nola izurde arruntak edo mularrak, rorque arrunta, aloi zuria, zeroiak eta orkak.

ERROTZE eta OHORE HANDIKO KLUBA



Unibertsitatean errugbia praktikatzen eben hiru lagunen gogo bizia da Gernika Rugby Taldearen jatorria, Gernika-Lumoko talde enblematicoa, kirol minoritario honekiko maitasuna Urdaibaiko publiko handi bati zabalduz. Bere historian zehar asko izan dira proiektu honetan parte hartu daberen pertsonak, klubaren errotze sozialean lan egin daberenak jarduera sozial eta kulturalen bidez; baina bere kirol balentria handiek be klub hau zaleen bihotzeraino goratu dabe.

Gernika Rugby Taldea 1973ko maiatzean sortu zan, Carlos Euba, Juanjo Larrauri eta Bittor Bilbaoren eskutik. Haiek izan ziran laster 47 urte beteko daberen kluba sortzeko jende gehiago "nahastu" ebenak. Gehienek ez ebezaren joko-arauak be ezagutzen, baina, halanda be, 15 bazkidek sinatu eben fundazio-akta herriko Onaindia-Jai Zai tabernan. "Eta beste ezer baino

ilusio handiagaz, GRTko lehen partida Derion jokatu zan 1973ko urriaren 28an, Deustuko zuzenbide fakultateko taldearen aurka" gogoratu dau Iñaki Uribe, Gernika R.T.-ko presidentea. Taldearen agerpena mugarri bat izan zan Errugbiaren historiaren barruan Bizkaian; Bilbotik kanpoko lehen kluba bihurtu zan eta, gainera, R.T. izena ezartzen eban. (Errugbi Taldea).

 **Busturialdeko**
mankomunitatea

Jasangarritasunagaz bat!





GRT-Worcester

Kirol honek Busturialdean izan dauen bilakaera etengabe hazi da, bai kirol arloan, bai gizarte arloan. "Kluba beti egon da Gernika-Lumoko hainbat gizarte eta kulturajardueratan, hala nola Errege-kabalgatan, jaietako erraldoi eta buruhandietan, jaietan txosnetan... eta kirol arloan, batez be, bi garaitan parte hartu dogu: 1989tik 1992ra eta 2009tik 2019ra. Espainiako errugbiaren maila gorenean parte hartu dogu, eta Getxo R.Tgaz batera, GRTko jokolariengandik sortutakoa, lehiaketa honetan parte hartu dauen Bizkaiko talde bakarra gara. Horregatik izan dogu oihartzuna eta jarraipena" nabarmendu dau Uribek.

Bere lehen partida ofizialak Santa Luziako Udal zelaian jokatu ebezan, eta, orain, Urbietako zelaia da baloi obalaren kirolaren zaleen bilgunea. Zelai honetan aurreko denboraldian Ohorezko B Mailara jaisteko kolpe gogorra hartu ebeen Gernika Rugby Taldeko zaleek; orain, lehen taldearen lehentasunezko helburua maila gorenera itzultzea da. Eta kirol guztietan bezala, harrobia eta fitxaketak funtsezkoak dira, eta GRTk euskal diasporako jokalaria ekartzeko apustua egin dau, errugbiak sustrai sendoak dekozen herrialdeetatik. Argentinagaz hasi ziran, eta Euskal Etxeen bidez jokalaria eta entrenatzaileekaz jarri ziran harremanetan, eta gero beste herrialdeetara

zabaldu ebezan kontaktuak. "Kontaktuak, hasiera batean, Euskal Etxeen bidez egiten ziran, baina egun, jokalarien agenteen bidez egiten da, futbolaren antzera, baina eskala txikiagoan. Klubaren filosofia kalitatezko plusa emongo dabezen eta beharrezkoak diran postu espezifikoak beteko dabezen jokalaria ekartzera doa zuzenduta, eta, horretarako, errugbia askoz herrikoia goa dan herrialdeetako jokalaria ekartzan saiatzen gara".

Hori guztia, oinarriko errugbia ahaztu barik eta errugbi eskolan etengabeko lanagaz. Lan zaila, historian zehar gertatu dan bezala futbolagaz lehiatu behar dabelako. Halanda be, "erakarmena" izaten jarraitzen dabe, eta gaur egun hiru talde nagusik osatzen dabe kluba: Euskal Ligan lehiatzen diran bi gizonetako eta emakumezko batek; 18 urtez azpiko eta 16 urtez azpiko taldeek, Euskal Liga jokatzen dabenek; 14 urtez azpikoe, 12 urtez azpikoe eta 10 urtez azpikoe, Bizkaia mailan jokatzen dabenek; eta 8 urtez azpikoe, txikienak, kontzentrazioak egiten dabezenek.

"Bigarren taldearen helburua, nagusiki, lehen taldera sar daitekezen jokalaria prestatzea da, jokalariek errugbian jokatuz goatzea eta hori guztia oinarri hartuta egungo mailari eustea. Emakumezkoen taldearen helburua da

Funeraria Tanatoria
IZARO



GERNIKA
C/ Don Tello, 18
Tel.: 94 625 83 23

izaro@funerariaizaro.es

BERMEO
Bizkaiko Jaurreria, 21
Tel.: 94 618 63 78

TABERNA
AUZOKOA

GERNIKA-LUMO
Tel. 94 625 16 66





ahalik eta neska gehien erakartzea eta ahalik eta sailkapenik onena lortzen saiatzea. Eta 18 urtez azpikoei eta beheko kategoriei dagokienez, kirolaz goza daieela eta haien balioak ikas daiezala."

HIRUGARREN DENBORA

Elkartasuna, ahalegina, errespetua, laguntasuna, horiek dira kirol honi datzekion balioak, eta Gernika Rugby Taldearen zimenduak. Errugbian inork ez dau lesio baten itxurak egiten, inork ez dau arbitroa protestatzen eta inork ez dau porrot bat zalantzan jartzen. Errugbiaz hitz egitea, bere "hirugarren denboraz" hitz egitea be bada: errugbi partida batek irauten dauen 40 minutuko bi zatiak amaitzen direnean, azkena hasten da, eta ez garrantzi gutxiagokoa, non emaitzak jada axola ez dauen, errugbia baita zelaitik kanpo jokatzeko dan denbora bat dauen kirol bakarra, kontrako taldeko jokalariekaz, arbitroagaz eta beste taldeen zaleekaz adiskidetu ahal izateko. "Geure kasuan Basurde Rugby Tabernan egiten dogu; hemen ahaztu egiten jaku garagardo bategaz zelaian zer gertatu ahal izan dan. Zelaian gertatzen dana zelaian geratzen da".

Atzera begiratu gero, Iñaki Uribeko emozio bereziz gogoratzen dauz klubaren bi lorpen: 1990/91 denboraldian Getxoren aurka Puerto de Santa Marian (Cadiz) jokatu eben Errege Kopako azpitxapelketa, galdu egin eben partida, baina bereziki harro sentitzen dira, jokalariek guztiak, bat izan ezik, Gernikakoak ziralako. Eta Amlin Cup, klubaren Europako hirugarren lehiaketa, 2012/13 denboraldian jokatu izana, eta Europako txapelketan aurkako zelaian partida bat irabazi dauen Espainiako ligako lehen taldea izatea, Rovigoren aurka (Italia), bai Gernikan bai Italian irabazi baitzioten. Klubaren Europako estreinaldia izan zan, gertaera historikoa, oparia, taldeak 40 urte betetzear egoazanean. Orain aurrera begiratu eta beste balentria baten alde lan egitea tokatzen da, bat gehiago, ohorezko mailara igotzea lortzearena.



BASURDEEN KOLOREAK

Urte hauetan zehar, *basurdeek* kolore ezberdinak izan dabez. Lehenengo, Sporting R.C.k utzitako ekipajea zuri-grisa izan zan, lehen urteetako eskasia ekonomikoan murgilduta. Gero, "Bordele" kolorea jantzi eben, lehen kamiseta propioetan. Eta gaur egun, sortzaileek amestu ebezan koloreak eramaten dabez soinean, berdea eta beltza.

ARMARRIA

Klubaren bereizgarrietako bat da eta Edu Gordo artista lokalaren lana da: diseinuzko joko bat, G.R.T. inzialekaz errugbi jokalariek figura bat sortuz, Gernikako Arbolaren irudia atzealdean daukola.

MASKOTA

"Basurde" bat klubeko maskota bat da, Urdaibaiko animalia adierazgarria, gainera egoitza sozialari izena ematen deutso, Basurde Rugby Taldea.



BARRIKUNTZA
ETORKIZUNA
AURRERAPENA



NOLA PARTE HARTU

Bere proiektu enpresariala "Arratzu Elkartegi Langunea"n ezartzeko interesatuek hemen kontaktatu:

azpiegiturak@bizkaia.eus/ Tel. 946 073 700

ZURE NEGOZIORAKO ESPASIO BATEN BILA?



ARRATZU ELKARTEGIA
LANGUNEA



Arrotz

EGURRAREN IBILBIDE TURISTIKOA

Aisialdi osasuntsuko eta "izpiritu
jasangarriko" bisita naturalak eta kulturalak.
Familian, bikotearekin, lagunekin...urte
guztian zehar

Erreserbak: visiturdaibai@nuevaeuropa.com

Tel. 94 625 06 06 - 634243762 / www.visiturdaibai.com



Visit Urdaibai

© bai Nueva Europa



Zer ideia ona!

nueva europa

EKIMEN TURISTIKOAK





Bizkaia

egiten